

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Lekeitioko Udala****Lokalen zaratak eta dardarak neurtzeko zerbitzuaren tasak arautzeko Ordenantza.**

2019ko maiatzaren 13ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen «Lokalen zaratak eta dardarak neurtzeko zerbitzuaren tasa arautzeko ordenantzaren hasierako onarpena», 30 eguneko epea emanaz herritarrek ikusi, aztertu eta, hala badagokio, alegazioak aurkezteko.

Epea igaro ondoren ez da inolako alegaziorik aurkeztu. Ondorioz, ordenantza behin-betiko onartuta gelditu da Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen duen Legearen 49 c) artikulua eta apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazketa berriak ezartzen dutenen arabera. Hau horrela, Ordenantza bere osotasunean argitaratzen da eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita indarrean jarriko da.

1. artikulua.— Xedea

Honako Ordenantzak helburu du lokalen eta establezimenduen zaratak eta dardarak neurtzeko udal-zerbitzuari dagokion tasa arautzea, laguntza teknikoa emango dela kontratatutako enpresa baten bidez.

2. artikulua.— Zerga-egitatea

1. Tasa honen zerga-egitatea da udal-zerbitzuek, ENACek homologatutako enpresa baten bidez lokal eta establezimendu publikoetako zaratak neurtzeko ikuskapen-zerbitzua ematea, zaraten eta dardaren kontrolerako ezarrita dagoen araudia betetzen duten egiaztatzeko.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko hots kutsadurari buruzko 213/2012 Dekretuaren arabera egingo da neurketa-prozedura eta neurketa-sistema.

3. artikulua.— Ordaintzeko betebeharra

Lokal eta establezimenduetako zaratak kontrolatzeko zerbitzua ematean sortzen da ordaintzeko betebeharra, eta gauzatuko da udalak neurketa egiten duen unean.

4. artikulua.— Subjektu pasiboa

Zerbitzua eskatu duen pertsona fisikoa edo juridikoa izango da tasa honen subjektu pasiboa. Honako hauek hartuko dira zerbitzu-eskatzailatzat:

- a) Ikuskapenak-neurketak hirugarrenek edo mugakideek eskatuta egiten diren kasuak:
 - I. Hirugarren edo mugakidea, neurketa egin ondoren lokalak zaratei buruzko araubidea hautsi duela egiaztatu ezin bada.
 - II. Neurtuko den lokalaren lizentziaren titularra, neurketa egin ondoren zarata-mailari edo isolamendu akustikoari buruzko araubidea ez dela bete egiaztatzen bada.
- b) Ikuskapenak-neurketak udalak ofizios egindako kasuetan:
 - I. Udala, neurketa egin ondoren ezin bada egiaztatu salatuak zaratei buruzko araubidea bete ez duela.
 - II. Neurtuko den lokalaren lizentziaren titularra, neurketa egin ondoren zarata-mailari edo isolamendu akustikoari buruzko araubidea ez dela bete egiaztatzen bada.

5. artikulua.— Zerga-oinarria eta kuota

Emandako zerbitzuaren arabera tarifeak ezartzen dute zerga-oinarria.

— Neurketa-tasa: 1.300 euro.

**6. artikulua. — Kudeaketa-arauak**

1. Honako ordenantzak izaera fiskala baino ez du; beraz, ordenantza aplikatzeak ez ditu baztertuko lokalak eta establezimenduak irekitzeari edo lekualdatzeari buruz aplikatu beharreko udal- edo sektore-araudiek ezarritako beste betebeharrak guztiak.

2. Oro har, 4. artikuluko a) atalean xedatutako kasuan, tasa udal- diruzaintzan edo banku-erakunde kolaboratzaileetan ordaintzeko eskatuko zaio interesdunari, dagokion neurketa egin aurretik.

3. Hala ere, udalak jarduketak abiarazi ahal izango ditu aurretik ordaintzeko eskatu barik, egindako salaketa ikusita edo ofizioz, ustez interes orokorreko baldintzek eragina duten kasuetan, egokia deritzon eta balizko hauste-egoera ez luzatzeko helburuarekin. Horrelakoetan, 5. artikuluko xedatutakoari jarraituz, nahiz eta hori gertatu tasa ordaindu behar duen subjektu pasiboak ez du izaera hori galduko.

4. Aurreko atalean zehaztu diren egoerei dagokionez, ikuskapena edo neurketa kudeatzeaz kargutuko den udal-zerbitzuaren ardura izango da txostena egitea, udaleko ekonomia zerbitzuek tasaren likidazioa egin ahal izateko behar dituzten datuak bilduko dituena.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek eragina izango du behin betiko onartu eta gero, legez aplikatu daitezkeen izapide eta epe guztiak bete ondoren, indarrean egongo dela berau aldatu edo indargabetzen ez den bitartean.

Lekeition, 2019ko uztailaren 12an. — Alkatea, Koldo Goitia Markuerkiaga